

IDEIA:


Human Security enpresako langileek Gasteizko kaleak babesteko modu bat aurkitu dute, ezaugarri desberdinak dituen botoi batekin soilik: 112 telefonora azkar deitzea eta poliziarri informazioa emateaz gain, hatz-markak edo erabiltzen den tokiaren informazioa ematen du.

Eraso kopurua eta zure etxetik kanpo dagoen delinkuentzia direla eta, enpresa honek Street Security sortu du. Zerbitzu hau kontratatu nahi duten herritar guztiei segurtasuna ematen dien botoi txiki bat. Gailu hori nahi den hiriko kale bakoitzean jarriko da.

Produktu horren sistemari esker egiten den dei bakoitzean zerbitzua zein posiziotatik erabili den zehazten da, hala nola, kalea edo kaletik gertu dauden segurtasun kamara guztiak pizteko trebetasun handia du, zer gertatzen den ikusteko.



Lehen esan bezala, zerbitzua kontratatzen duten pertsonak baino ezin izango dute baliatu, bakoitzaren hatz-markarekin funtzionatzen baitu. Hau da, zerbitzua erabiltzen ari ez den herritar batek laguntza bila botoia sakatzen badu, ez du ez informaziorik ez mezurik bidaliko. Hala ere, zerbitzua kontratatuta baduzu, hainbat onura izan ditzakezu. Horietako bat da poliziarri botoi bakar batekin deitu ahal izatea, telefonoa atera eta zenbakia idatzi behar izan gabe (zaila da hori egitea lapurreta edo bortxaketa baten erdian, nerbioengatik ez bailitzateke erraza izango).



Antzeko sistemen arazoa da laguntza behar izan gabe txantxa gisa egiten diren deiak edo larrialdiak. Horregatik, iristen den lehen gauza deia egin duen pertsonaren arrasto digitala da, zalantzarik ez izateko. Izan ere, zure hatz-marka enpresa horretara iritsiko zela jakinda, ez zen hain barregarria izan beharko.